# Jazzaldia: 103.000 ikusle

**Balantzea »** Krisia krisi, jaialdiak parte hartze markak hautsi ditu; «notarekin gainditu du azterketa urte zail honetan», esan du Denis Itxaso Kultura zinegotziak.

NEREA LIZARRALDE

Proba zaila gainditu behar izan du aurten Jazzaldiak. Aurrekontuan murrizketak izan ditu eta jaialdiak berak egun bat gutxiago izan du. Halere, Denis Itxaso kultura zinegotziaren ustez, Jazzaldiak «notarekin gainditu du azterketa urte zail honetan». Uztailaren 23an eta 25ean bildutako jendetzak markak hautsi dituela nabarmendu du eta, beraz, parte hartzearen aldetik jaialdi arrakastatsua izan dela adierazi du Itxasok: «32.000 ikusle izan ziren 23an zein 25ean. Inoiz baino ikusle gehiago bildu dituzten egunak dira. Egia da sarrera gutxiago saldu direla, aurreikusitakoa baino gutxiago. Kursaal Auditorioa izan da kaltetuena. Soilik azken egunean, James Taylor-en kontzertuan, bete zen aretoa. Victoria Eugenia Antzokiko kontzertuek harrera hobea izan dute. Bestalde, hondartzako kontzertuetan 7.500 ikusle izan dira batez beste, eta jaialdiaren ikuskizunek 103.000 ikusle erakarri dituzte guztira».

## Kontzertu gogoangarriak

Halere, jaialdian une berezi eta distiratsuak izan direla azpimarratu du zinegotziak: «Trinitate plaza berreskuratu dugu aurten eta garrantzitsua izan da eszenatoki hau, Jazzaldiaren arima baita. Harro sentitzeko moduko lekua da eta Jamie Cullum abeslariak berak esan zuen ez zuela inoiz horrelako toki batean jo. Trinitate plaza eta Jazzaldia bikote banaezina dira, zalantzarik gabe».

Miguel Martin zuzendariaren ustez, «kontzertu gogoangarriak izan dira aurten. Dave Douglas, Brad Mehldau, Hank Jones, Roy Haynes... eta batez ere, Abdullah Ibrahim pianistarena. Carla Bley, Joe Lovano edo The Bad Plus-en zuzenekoak ere izugarriak izan dira».

Emanaldi guztien artean festarako tartea ere izan dela esan du Martinek: «Pitingorena, esate baterako. Eta asko pozten naiz. Oso ondo abetsen du eta publikoa bere egin zuen. James Taylor-ena ere ospakizun handia izan zen. Bertako jarraitzaileei zor zien horrelako kontzertua. Ibilbide luzeko artista da Taylor, eta bertara etortzen den lehen aldia izan da. Doako emanaldietan, espero genuen bezala, Vetusta Morlak, Facto Delafek, Black Joe Lewisek eta Jake Shimabukurok sekulako arrakasta izan zuten».

Bestalde, badirudi Animal Collective eta Micah P. Hinson-en kontzertuek hautsak harrotu dituztela euren jarraitzaile fidelenen artean. Batzuk oso gustuko izan zituzten emanaldiak, beste batzuk, aldiz, ez ziren batere gustura geratu. Miguel Martin zuzendaria, ordea, pozik dago kontzertu hauen inguruan sortutako eztabaidarekin: «Guretzat ona da jendeak programazioaz hitz egitea».

### » DATUAK

- **Ikusleak.** 103.000.
- **Jende gehien bildu dituen egunak.** Uztailaren 23an, osteguna, eta 25ean, larunbata. 32.000 ikusle egun bakoitzean.
- **Kontzertu jendetsuenak.** Kursaal Auditorioan, James Taylor (1.806 ikusle); Victoria Eugenia Antzokian, Buena Vista Social Club (876 ikusle); Hondartzako Agertoki berdean, Vetusta Morla (9.000 ikusle) eta Black Joe Lewis 9.000 ikusle); Heineken karpan, Open Mike ekimena (900 ikusle), Klezmafour (750) eta Jake Shimabukuro (750); Frigo gunean, Bikini Machine (3.500) eta Gregario de Luxe (3.500).


Jamie Cullum gazteak Trinitate plaza bete zuen igande gauean. LOLO VASCO / JAZZALDIA


Trinitate plazan jaialdiko une magikoenak bizi dituzte aurten musikazaleek. JAZZALDIA



# Jarrai dezala aurrera



**» Iritzia**

**Mikel Azpiroz**
Musikaria

Hotz samarra iruditu zitzaidan James Taylorren kontzertua. Ikusmina sortu duen emanaldia izan da, izan ere, Taylor *superstar* bat da. Gainera, ez da ohikoa Taylor inguru hauetan ikustea. Zuzeneko oso yankeea izan zen igandekoa. Phoenix-en edo Salt Lake City-n dauden pabiloi horietako batean nengoela sentitu nuen. Bere abesti arrakastatsuenak jo zituen, *Carolina on my mind,* esaterako. Taylorrek 1968an sortu omen zuen Formenteran zenean. Motxilero gisa egon zen garai hartan eta herriminak inspiratuta idatzi zuela esan zuen emanaldian. *Covers* diskoan bildutako bertsioak ere interpretatu zituen. Carol King-enak, tartean.

Izugarri gustatzen zaidan pianista izan zuen Taylorrek aldamenean, Larry Goldings. 1993an Maceo Parkerrekin etorri zen Jazzaldira. Goldingsek berak hirukotea du, oso jazzalea da. James Brownek Trinitate plazan kontzertua eman zuen egunean izan zen bertan. Steve Gadd bateria jotzailea ere izan zen Kursaaleko kontzertuan. Eric Claptonekin edo Paul Simonekin jo izan du. Los Angeles-eko estudio musikaria da. Bi *bis* egin zituen eta lepo betetako aretoa zutik jarri zuen Taylorrek. Trinitatean Melissa Laveaux izan zen. Jack Johnson-en estiloko hirukotearekin etorri zen. Oso talde lasaia. Ondoren, Jamie Cullum gazte eta izar mediatikoa iritsi zen, bere emanaldi ikusgarriarekin, jazzaren alde komertzialenaren *show*arekin, alegia. Talentua badu jotzen eta ikuskizun ona eskaintzen. Hitz ederrak izan zituen, gainera, Trinitate plazarentzat, inoiz horrelako eszenatokirik ez zuela ezagutu esan baitzuen. Bestalde, Clint Eastwoodek *Gran Torino* filmerako abesti bat eskatu zionekoa kontatu zion publikoari.

Bestalde, Hank Jones, Buena Vista Social Club eta Randy Weston izan dira nire kontzertu gogokoenak. Jazzaren historiaren figurak izan ditugu eta hori luxua da. Jonesek jazzaren eboluzio osoa ikusteko aukera izan du. 30. hamarkadan 20 urte baitzituen.

Izugarria izan zen bera jotzen ikustea. Dotorea, sofistikatua... Abesti bakoitza aurkeztu zuen. Nik 94an ikusi nuen eta aldea nabaritu dut, jakina. Zahartuta dago, baina eszenatokian egoten badaki. Donostiako asterik politena da niretzat Jazzaldia, giroagatik, udako gauengatik... Jarrai dezala jaialdiak aurrera.

# Ametsa, egia bihurtuta

**» Iritzia**

**Ander Garcia**
Musikaria

Bizia eta hunkigarria. Halakoa izan zen Carla Bley pianista eta konpositoreak joan den ostiralean Victoria Eugenia Antzokian eman zuena. Askatasuna eta komunikazioa izan ziren nagusi emanaldian.

Artista handia izanagatik umiltasun izugarria erakutsi zuen Bleyk. Eztia eta lotsati samarra da da musikaria eta hala agertu zen publikoaren aurrean. Bere aldamenean, irribarre handi batekin, bere senarra Seteve Swallow baxu eta konpositorea izan zuen. Baita bere alaba, Karen Mantler ere.

Musika amerikarraren sustraiak abangoardiara eramaten ditu Bleyk eta erakustaldi bikaina egin zuen Jazzaldian, gospel, swing, pop, rock eta beste hainbat estilo jo baitzituen.Kontzertu hau oso garrantzitsua izan zen niretzat. Zergatik? Steve Swallow, nire erreferentea ezagutzeko aukera izan nuelako eta, hala, nire ametsa egia bihurtu nuelako.

# «Ondarea belaunaldiz belaunaldi iraunarazteko obligazioa dugu»

**FERMIN LEIZAOLA ›** Aranzadiko Etnografia arloko zuzendaria

**Saria »** Foru Aldundiak sortu berri duen Ondarearen Saria jasoko du etnografo donostiarrak, 25 urtetan egindako lanagatik.

MAITANE ALDANONDO

Fermin Leizaola (Donostia, 1943) Aranzadiko kide egin zenetik mende erdia igaro da. Urte horietatik gehienak, nagusiki, Gipuzkoako artzain eta baserritarren bizimodua ikertzen eman ditu. Lan horren emaitzetako asko laster ikusgai izango dira Irungo Gipuzkoako Ondare Gordailuan. Elkarlanean emandako 25 urteen aitortza gisa, Foru Aldundiak Ondarearen Saria eman dio.

**Ondarearen Saria jasotzen lehena izango zara. Nola jaso duzu berria?**

Asko poztu naiz. Txundituta nago eta, Foru Aldundia Gipuzkoako kultura ondarearen funtserako egin dugun lanarekin gogoratu izanagatik, eskerdun.

**Zenbat urte daramatzazu etnografia lanetan?**

47 bat. 16 urte nituela egin nintzen Aranzadiko bazkide, Gipuzkoak ohikoak diren espeleologia eta karst fenomenoetan interesa nuelako. Artzainei eta baserritarrei galdetu behar genien non zeuden kobak eta leize-zuloak. Interes handia nuen eta galdetegia ere osatu nuen modu sistematikoagoan galdeketa egiteko. Horrela beren bizimodua-rekiko interesa piztu zitzaidan.

**Artzainen eta baserritarren bizimodua ikertu duzu nagusiki, beraz.**

Nola bizi ziren eta zerekin, bizirauteko erabiltzen zituzten lanabes eta erremintak. Esaterako, laiarekin lursail handi bat lantzen zuten bizpahiru anaia ezagutu nituen. Gerora sagardotegiak edo erretegiak apaintzeko edo astoa lotzeko erabiltzen dela dirudi. Horrek guztiak ekarri zuen gizon hauekiko interesa piztea. Arkitektura, hileta erituak, garaiak... ere ikertu ditut, baina esan daiteke nire ikerketa ildoa artzaintza dela. Gipuzkoan, Euskal Herrian, Baskonian eta baita Europako hainbat tokitan ere, gero alderaketak egiteko.

**Didaktika eta sentsibilizazioa egin izan ez bagenu, objektu horiek galduko lirateke**

**Donostian ikerketarik egin al duzu?**

Ez, Donostian gauza batzuk gordeta ditut. Hiriko munduaren antropologia ez zait bestea bezain interesgarria iruditzen. Gainera, ikerketa kanpora irteteko aitzakia ere bada.

**Zure lana gizarterazteko egindako ahalegina ere saritu nahi izan dute.**

Zaharkinak proiektuaren bidez, sentsibilizazio eta didaktika lana egin genuen. Lurraldearen ondare etnografikoa sortu eta handiagotzeko materialen ikerketa, bilketa eta erosketa egin izan ez bagenu objektu horiek saldu, erre, bota... galduko lirateke.

**Zertan zetzan proiektuak?**

Agian berreskuratu egingo dugu. 17 bat herritan bertako baserritarrek zituzten egunerokotasuneko objektuen –altzariak, lanabesak, ontziteriak...– bildu eta erakusketak egin genituen. 1.000 edo 2.000 utzi zizkiguten jabeek, eta guk garbitu, prestatu edo erakutsi egin genituen. Horiek ikustean ganbaran edo bordetan ahaztuta zeuden elementu horiek garrantzia hartu zuten erakusgai egoteagatik. Ondorioz, ikusgai jartzen dituzte etxeko sarreran, korridorean... Balioa berreskuratzen dute, gure arbasoek erabilitako edo egindako tresnek aintzatespena dute.

**Aipatutako lanabes eta tresnak jende askok ez ditu ondaretzat hartzen, ezta?**

Jendeak uste du margolari ezagun baten margolana, eskultura edo Arte Ederretako objektua izan behar duela ondarea izateko. Baina ez. Ondarea dena da, arkitektura herrikoia, hizkuntza, artisautza... hemengoak eta beste edozein tokitakoak desberdinak dira. Horregatik, babestu, bultzatu eta belaunaldiz belaunaldi iraunarazteko obligazioa dugu.


ARANZADI

**Arlo anitzeko 15.000 edo 17.000 objektuk osatutako bilduma dugu**

**Zu hasi zinen elementu hauen bilketarekin. Zeintzuk ikusiko dira Gordailuan?**

Egun, arlo anitzeko 15.000 edo 17.000 objektuk osatutako bilduma dugu. Hauen zati txiki bat aipatutako erakusketa haietatik datoz, helburua ez baitzen objektu horiek erostea, horiei balorea eman eta gizarte kontzientziatzea baizik. Dohaintzak eta erosketak bildumak zituztenengandik etorri dira, horiek urtetan eta mendetan gorde eta babes daitezen.

IZARRE 685739355
Medikuntza naturala,
bakarkako konstelazio familiarrak,
tarot-a terapeutikoa
Donostin, Orion, Deban...